



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2017KO OTSAILAREN 14EAN**  
**GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Xabier Arregi Iparragirre.

**Zinegotziak:** Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel.

**Ezin-etorria adierazi dute:** Irene Garcia Palaciossek eta Josune Estella Arranzek.

**1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA:**

**\* 2017/01/31KO OHIKO BILKURA.**

Batzarkideek, 2017ko urtarrilaren 31ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- MARI CRUZ AGIRRE AZKUE ANDREAK TXOKOALDEKO GOIKOERROTA BASERRIKO LURRETAN ERAIKITAKO EUSTE-HORMARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.**

ESP. ZENBAKIA: HZ.04/2015-0485

MARI CRUZ AGIRRE AZKUE andreak egindako eskaera aztertu dut. Bertan, Txokoaldeko Goikoerrota baserriko lurretan eraikitako euste-hormaren lehen erabilera baimena eskatzen du.

**AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA**

Alkateak, 2016ko otsailaren 16an, MARI CRUZ AGIRRE AZKUE andereari, Txokoaldeko Goikoerrota baserriko lurretan euste-horma eraikitzeke udal baimena eman zion.

<b>OBRAREN EZAUGARRIAK</b>	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	7.475,40 €
<b>Obra amaierako ziurtagiria:</b>	<b>7.476,40 €</b>
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen araberrako hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 201,57 €
	Fidantza (%120): 241,80 €.



Usurbilgo Udala

### LEHEN ERABILERA BAIMENA

2016ko uztailaren 7an MARI CRUZ AGIRRE AZKUE andereak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, egindako euste-hormaren lehen erabilera baimena eskatu du. 2017ko otsailaren 7an berriz, hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztu du.

### TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagokion ikuskapen-bisitaldia burutu ostean, 2017ko otsailaren 7an obra amaierari ALDEKO txostena eman dio.

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### **ERABAKIA**

**LEHENDABIZI:** MARI CRUZ AGIRRE AZKUE andereak Txokoaldeko Goikoerota baserriko lurretan eraikitako euste-hormari lehen erabilera baimena ematea.

**BIGARRENA:** Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko ezarritako 241,80 €-tako fidantza (IE 7-2016) itzultzeko agintzea kontuhartzaitzari.

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari emango zaio.

### **3.- 2016KO KIROLETAKO DIRU-LAGUNTZEN ZURIKETA.**

#### **Ikusirik**

2016ko otsailaren 3an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2016ko kirol egitasmoak burutzeko dirulaguntza oinarriak argitaratu ziren eskaerak aurkezteko 20 eguneko epea emanez. Epe horretan, guztira 12 diru-laguntza eskaera aurkeztu zirela.

Ondoren, 2016ko apirilaren 19ko bilkuran Diru-laguntzen Batzorde Orokorrak, kirol teknikariaren txostena kontutan harturik, ebazpen-proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaizela alegazioak aurkezteko.

Apirilaren 5ean Kirol Batzordeko kideei, 2016ko kirol egitasmoak burutzeko diru-laguntzen proposamenaren berri eman eta ondoren, aurreneko zatia eskatu zuten 12 kirol elkartei %50a eman zitzaien. Bi urte naturalak hartzen dituzten kirol elkarteek, 2016 irailaren 23ra arteko epea zuten zuriketak egiteko eta gainontzekoak berriz, 2017ko urtarrilaren 15era artekoa.

Eskatutako modu egokian eta epe barruan aurkeztutako gastu-zuriketak.

#### **Eta kontuan harturik**



Usurbilgo Udala

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**Lehenengoa:** Zerrendan azaltzen diren kirol elkarteei proposatutako ordainketak egitea.

Kirol elkarteak direnen jardueretako:

Tximeleta	595,14
Andatza M	1.695,90
Baxurde txiki	176,41
Bazpi	154,89
Beterri Sub	61,63
Usurbil FT	1.709,71
Usurbil JC	2.236,60
Makax	204,45
Pagazpe	125,35
Usurbil KE	6.509,63
Zubieta Lantzen	-274,19
Zubieta PE	483,91
<b>DENERA:</b>	<b>13.679,44</b>

Kirol elkarteek ez diren kirol jardueretako:

2016

Euskaraz Koop. Elkartea AEK (lehen Etumeta-Javier Espina)	24,00
Einean GE	0,00
San Praixku GE patin ikastaroa	-53,33
San Praixku GE psikomotrizitatea	-86,13

**Bigarrena:** Itzulketa egin behar duenari, jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean egin beharko du itzulketa, Udalaren kontu zenbaki hauetakoren batean:

Kutxabank: 2095 5069 07 1060024832  
Euskadiko Kutxa: 3035 0140 30 1400900017  
BBV: 0182 5709 46 0200200418



Usurbilgo Udala

**Hirugarrena:** Gastuak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4300.481.341.00.01 2016 (A 132-2016) eta 1.4300.481.341.00.08 2016 (A 133-2016) hurrenez hurren.

**Laugarrena:** Interesatuei akordioaren berri ematea.

**Bosgarrena** Honen berri kontu-hartzaileari ematea.

**Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:00etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**